

**‘Mañaritik Atxetara’
mendi lasterketaren araudia**

II. Edizioa

2025/09/20



Kabraga

1. LASTERKETA DATA ETA ORDUTEGIA

43K lasterketa:

Irteera: 2025/09/20, goizeko 08:00tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza. 19:00tan kontrola itxiko da.

22K lasterketa:

Irteera: 2025/09/20, goizeko 09:00tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza. 15:00tan kontrola itxiko da.

'Untzillaitz zuzen' igoera bertikala:

Irteera: 2025/09/20, goizeko 09:15tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Untzillaitz tontorra. 10:30tan kontrola itxiko da.

Mendi martxa:

Irteera: 2025/09/20, goizeko 09:30tan Mañariko udaletxeko plazatik.

Helmuga: Mañariko udaletxeko plaza.

2. IBILBIDEEN XEHETASUNAK

Ibilbide gogor eta teknikoen bila dabilen edonorentzat prestaturiko mendi bueltak Urkiola parke naturaleko paraje zoragarrietatik.

43K eta 22K lasterketa biek ibilbidearen zati handi bat partekatuko dute. Hala ere, hasierako maldak 43K lasterketak eta mendi martxak partekatuko dituzte Mugarrikolandaruntz abiatuz. Aurtengo edizioan aldaketa txiki bat sartu da, Mugarrikolandatik 'Marmol' bezala ezagutzen den gunera jaitsi eta handik berriro Mugarrikolandara bueltatuz (lehen hornidura puntua). Hortik, Artatxagane (996m) eta Leungane (1008m) igoko dira.

Lehen tontor hauen ostean Amudiako iturrira jaitsi eta Inunganeko aterpetxera iritsiko dira Mañarira itzultzeko jaitsierari ekinez. Mendi martxakoek Mañarin emango diote bukaera ibilbideari. Bertan bigarren hornidura puntua egongo da 43Km ibilbidekoentzat.

Mañaritik 22Km eta 43Km-ko lasterketek ibilbidea zati handi baten partekatuko dute. Lehenik GR pistatik Gatzaieta baserriraino igoko da (hornidura puntua). Gero Atxartera jaitsierari ekingo zaio erromatarren bidetik. Behin Atxartera iritsiz, Astxikirako bideari ekingo zaio. Artolarako bide ezagunetik igoaz joango da korrikalaria hasiera baten baina azken zatia atxa artetik sartuko da Astxikiren (785m) gailurrera igoaz. Bide klasikotik jaitsiz Anbotoko mendikatearen ipar alderantz jo, bigarren hornidura puntutik pasa eta Larranorantz (981m) igotzeari ekingo zaio.

Puntu horretan 22Km-ko ibilbidekoak Pol-polerantz abiatuko dira eta 43Km-koak Anboto magalerantz bere iparraldetik beti ere. Anbotoko kilometro bertikalaren ibilbidearekin bat egitean, Arrazolara jaitsi (hirugarren hornidura puntua) eta Zabalandirantz igoera gogor bezain politari ekingo diote. Mariren kobaren magaletik doan PR-ari jarraituz Zabalandira iritsi eta bertotik Pol-polerantz abiatuko direlarik 22Km-ko ibilbidearekin bat eginaz.


Ibilbideko azken aurreko zailtasuna Urkiolamendi (1011m) izango da. Bertotik Urkiolako santutegirantz abiatu, hiru gurutzeak pasatu eta berriro ere Gatzaietako hornidura puntura helduko dira lasterkariak azken maldari ekin aurretik.

Untzillaitzeko diagonal txikia izango da eguneko azken oztopo nagusia. Bai igoera zein jaitsierra teknikoei aurre egin beharko zaie Mañariko udaletxeko plazara iritsi eta lasterketari amaiera emateko.


Untzillaitz zuzen igoera bertikal berriak aldiz, 43K eta 22K lasterketako lasterkariak egingo duten azken jaitsiera izango dute igoerako ibilbide bezala. Erronka gogor bezain ederra!

3. IBILBIDEEN DATU TEKNIKOAK ETA PERFILAK


43K lasterketa: 43,2km, 3900m+, altura maximoa 1011m




22K lasterketa: 22,4km, 2000m+, altura maximoa 1011m



Mendi martxa: 13,5km, 1100m+, altura maximoa 1008m



'Untzillaitz zuzen' igoera bertikala: 2,9km, 747m+, altura maximoa 941m



4. HORNIDURA PUNTUAK ETA DENBORA MUGAK

Ondorengo taulan azaltzen dira ibilbide bietan parte-hartzaileek aurkituko dituzten hornidura puntuak eta bertatik pasatzeko izango diren ordu kopuru maximoak:

Hornidura puntua		43K		22K	
		Km	Tmax	Km	Tmax
1	Mugarrikolanda	6,4	1h20'		
2	Mañaria	13,5	2h40'		
3	Gatzaieta	18	3h30'	4,7	50'
4	Sagasta-gain	23,6	5h30'	9,9	2h30'
5	Arrazola	29	7h		
6	Gatzaieta	37,8	9h15'	17	4h15'
7	Mañaria	43,2	11h	22	6h

‘Untzillaitz zuzen’ igoera bertikalean denbora muga 1h30min izango da.

Hornidura puntuetan antolatzaileek denbora mugak kontrolatuko dituzte, hauek gaindituz gero dortsala antolatzaileari eman beharko diolarik korrikalariak. Hornidura puntu horiez gain, Astxiki, Larrano eta Urkiolamendi gainetan igartzeko kontrolak egongo dira, nahiz eta horietan ez den denbora muga kontrolatuko.

Hornidura puntu guztietan aurkituko da bai solido eta bai likidoa. Hornidura puntuetan ezarritako zabor-poltsetan bere zaborrak bota ahalko ditu lasterkariak. Puntu hauetan izan ezik, ibilbidean zehar ezin izango da zaborrik naturara bota. Horrela izanez gero, lasterkariari kanpo geratuko da antolatzailea honetaz konturatu bezain pronto.

Ibilbidean jarraitu nahi izanez gero, korrikalariak bere ardurapean lasterketatik kanpo egin beharko du aurrera.

5. IZEN EMATEA

Izen-emateak Kronoak webgunean (<https://www.kronoak.com>) egin ahal izango dira, 2024ko abenduaren 20ko arratsaldeko 15:00etatik aurrera.

16 urtetik gorakoek eman dezakete izena lasterketa bietan. 16 eta 18 urte artekoek guraso edo tutorearen baimena izan beharko dute eta baimen hori antolakuntzari helarazi beharko zaio.

Lasterketa bakoitzeko lasterkari kupoak hauek izango dira:

- 43K: 250 korrikalari
- 22K: 250 korrikalari
- ‘Untzillaitz zuzen’ igoera bertikala: 100 korrikalari
- Mendi martxa: 100 mendizale

Kupoak betez gero, itzarote-zerrenda irekiko da. Izena emandakoen artean bajaren bat badago, itxaron-zerrendan daudenei deituko zaie, izena emateko hurrenkeraren arabera.

Izen-emateen prezioak ondorengoak izango dira fetxaren arabera eta kupo maximoa bete arte:

Fetxak	43K	22K	Untzillaitz zuzen	Mendi martxa
2024/12/20-2025/03/01	45€	25€	15€	10€
2025/03/02-2025/06/01	50€	30€	17€	11€
2025/06/02-2025/09/17	52€	32€	18€	12€
Egunean bertan	Ezinezkoa	Ezinezkoa	Ezinezkoa	12€

Lasterkariaren poltsako materialen taillak bermatzeko, izen-emateak 2025/09/01 aurretik egin beharko dira. Hortik aurrera, erroa taillak ezingo dira bermatu.

Izen-emateen anulazioa edo modalitate aldaketa posible izango da ondorengo penalizazioak kontuan hartuz:

Anulazio fetxak	43K	22K	Untzillaitz zuzen	Mendi martxa
2025/05/01 arte	Dohainik	Dohainik	Dohainik	Dohainik
2025/06/01 arte	10€	5€	3€	2€
2025/07/01 arte	20€	10€	5€	4€
2025/08/01 arte	30€	15€	8€	6€
2025/08/02-2025/09/21	Ezinezkoa	Ezinezkoa	Ezinezkoa	Ezinezkoa

Dortsala III. ediziorako gordetzeko aukera egongo da lasterkariak horrela nahi badu 2025/08/01 arte.

Dortsala lasterkari berri bati pasatzeko aukera egongo da 2025/08/01 arte.

Goiko aukeretakoren bat tramitzeko antolakuntzakoei email bat bidali manaritikatxetara@gmail.com helbidera.

6. DORTSALEN BANAKETA, KONTSIGNA ZERBITZUA ETA DUTXAK

Dortsalen banaketa lasterketa ostiral arratsaldean 17:00 eta 19:00 artean egingo da eta baita lasterketa egunean goizeko 7:00etatik aurrera Mañariko frontoian.

- 43K: 7:00-7:45
- 22K: 7:00-8:45
- 'Untzillaitz zuzen' igoera bertikala: 7:00-8:45
- Mendi martxa: 8:45-9:30

Derrigorrezkoa da lasterketa osoan zehar dortsala gorputzaren aurreko aldean eta agerian eramatea. Dortsala jasotzerako orduan derrigorrezkoa izango da identifikazio txartel bat aurkeztea.

Lasterketa aurretik frontoian kontsigna zerbitzua egongo da. Lasterketa amaitu ondoren dutxa gunea egongo da, helmugatik 100m-tara.

7. DERRIGORREZKO MATERIALA

Lasterketa aurretik boluntarioek ondorengo derrigorrezko materiala konprobatuko dute 43K eta 22K mendi lasterketetan:

- Txanodun zira iragazkaitza. Txanorik ez badu, buff edo txapel bat eraman beharko da.
- Edalontzia edo soft-flask
 - o 22K: 500ml gutxienez.
 - o 42k: 1l gutxienez
- Manta termikoa.

Untzillaitz zuzen igoera bertikalean eta mendi martxan ez dago derrigorrezko materialik.

Eguraldi iragarpenen arabera, antolatzaileek material gehiago eskatu dezakete. Email eta sare-sozial bidez informatuko zaie lasterkariei kasu horretan.

8. KATEGORIAK

- Absolutua (emakumezko/gizonezko): 16tik gorako parte hartzaile guztiak.
- Mañariarra (emakumezko/gizonezko)

9. SARIAK

Ondorengo sariak banatuko dira lasterketa bietan bai emakumezko eta bai gizonezkoentzat.

Kategoria	Postua	43K	22K	Untzillaitz zuzen
Absolutua	1	300€ Garaikurra Txapela	150€ Garaikurra Txapela	50€ Garaikurra Txapela
	2	200€	100€	40€
	3	100€	50€	30€

Lehenengo Mañariarrak ere sarituak izango dira 43K eta 22K lasterketetan.

Sari banaketa Mañariko plazan:

- Untzillaitz zuzen eta 22K lasterketa: 13:00
- 43K lasterketa: 16:00

10. ERANTZUNKIZUN DESKARGUA

Izena ematerako orduan, Kronoak plataforman ageri den 'Erantzunkizun deskargua eta gaitasun fisikoa' dokumentua onartutzat emango da.

11. ANTOLATZAILEEN OHAR ETA ESKUBIDEAK

- Ibilaldian txakurrak eraman ahal izango dira, baina beti lotuta egon beharko dute, Urkiolako Parke Naturalean dagoen araudia dela eta. 43K, 22K eta Untzillaitz zuzen igoera bertikalean aldiz ezingo da txakurrik eraman.
- Lasterkariren bat bere izenean ez dagoen dortsal batekin badago, antolakuntzakoek korrikalaria geratuko dute honetaz ohartu bezain pronto. Horrekin batera dortsala kendu eta sailkapenetik kanpo geratuko da.
Mañaritik Atxetarako antolakuntza ez da kargu egiten dortsalaren erabilera okerren aurrean eta lasterketako ibilbidean zerbait gertatuz gero, lasterkariaren ardura izango da bere segurtasuna bermatzea.
- Hiru lasterketetan ezin izango da belarrietan aurikularrekin joan.
- Eguraldiaren ondorioz antolakuntzak ondorengo aldaketak egin ditzazke:
 - o Ibilbidean aldaketak parte-hartzaileen segurtasuna bermatzeko.
 - o Derrigorrezko material gehiago eskatzea.
- Iragarpen meteorologikoen ondorioz proba bertan behera utzi behar izanez gero, ez da itzuliko izen-emateen dirurik.
- Antolaketak araudi hau aldatzeko eskubidea du. Aldaketaren bat egonez gero, parte-hartzaileei informazio aktualizatua helaraziko zaie.